

egunekoa

Felix Placer

(Gasteizko Teologia Fakultateko irakaslea)

Elizaren etorkizuna

Askotan gertatzen da hedabideetan agertzen diren arazoez beste errealitate sakonago eta larriago batzuk ezkutatzeari. Gaur egun antzeko zerbait gertatzen da Elizan. Oraindik oraingo eskandalu sexualez sortutako zalapartak sakontasun handiagoko beste gorabehera batzuetatik desbideratu du arreta. Jokabide horien larritasuna ukatu gabe, ez da ahaztu behar Eliza gaur egun krisi orokor batean murgilduta dagoela.

Mendeetan zehar erreferentzia gune nagusia izaten ohituta egon ondoren, Elizako botere-sektoreek kezkatuta ikusten dute gero eta eragin ahalmen txikiagoa dutela nazioen eta estatuen artean. Batzuentzat lasaigarria da ohartzea zer-nolako ahalmena duen Joan Paulo II.ak jendetzak biltzeko, eta oraindik ere kristandadea berrezartzearekin amets egiten dute. Beste batzuek, kezkatuago baitaude, hala galdetzen dute: kristautasuna desagertzen ari ote da? Azken kristauak ote gara? Elizaren amaieraren hasiera ikusten ari gara? Eta hala, irauteak kezkatuta, bunker kontserbadore batean gotortzen setatzen dira, eta inguruan etsaiak besterik ez dute ikusten. Badira egungo elizaren organigrama hierarkikoa salatzen dutenak ere.

Jarrera kontserbadore edo kritikoen artean, gauza bat argi dago. Elizarentzat erabakigarria den inflexio puntu batera iritsi gara, non jokoan baitago haren etorkizuna. Hitz hori erabiltzean, ez naiz ari erlijioak edo Elizak irauteaz edo ez irauteaz. Duela urte batzuk hainbatek hala pentsatu arren, gaur egun Eliza gizarteetatik desgertzeko aukera ez da jasotzen diagnostiko soziologiko eta kulturaletan. Hortaz, badirudi egokiagoa dela aldaketaz hitz

egitea: zein izango dira iraungo duten eliza eredua eta erlijio modu berriak, eta nola iraungo dute?

Jakina, handiagoa izango da joeren aniztasuna, Elizako kide izateko era gehiago egongo dira, baita kontzientzia erlijio-soa izateko ere. Batzuek edozein erakundetatik at eutsiko diote fedeari; beste-tzuek, bete-beteko kristauak, katolikoak direla esango dute, eta beren elizan daukaten kontrol autoritarioari eusten saiatuko dira. Bi mutur horien artean, hainbatek, eliz mugak gaitututa, XXI. mendea mistikoa izatea aldeztu dute, gizatiarra izatea nahi izanez gero, hala nola kristautasuna baztertuen aldekoa izatea, eliza ekumenikoa eta mundua ekologikoa.

Egoera berria ikusita, beste kontzilio unibertsal bat proposatzen ari dira, baina ez litzateke Vatikanoko III.a izango, Jerusalem II.a baizik (lehendabizikoa apostoluen garaian egin zen), eta, hain zuzen ere, hiri gatazkatsu horretan egingo litzateke munduko erlijio eta zibilizazioen arteko adiskidetze sinbolo gisa. Eta honako hauek aldeztu dituzte: elizaren dezentralizazioa, Erromari lotuegia baitago; emakumearen berdintasuna eta duintasuna onartzea esparru eta ministerio guztietan; adierazpen eta komunikazio askatasuna Eliza askotarikoan; giza harremanen gaineko ikuspegi berria sexualitatearen bezala ezkontzan ere; Elizaren konpromisoa gizarte justiziaren eta berdintasunaren alde, globalizazio neoliberalaren baztertuak dagoakenez; Elizak bakearen alde jardutea, hala nola gatazkak indarkeriarik gabe eta justizian, berdintasunean eta pertsona zein herri guztien askatasunean oinarrituta konpontzearen alde egitea.

Euskal Herrian? Duela zenbait urte Caro Barojak honako oharpen hau egin zuen: «Euskal Herrian erlijio katolikoa» izan da «indar hertsatzailerik handiena egungo euskal gizartearen mamitu dutenen artean, eta aspaldi samarretik mugiarazi duena une erabakigarrietan». Eragin hori oraindik ez da desagertu hainbatengan. Baina ez da hala gertatzen gehienentzat. Beste erreferentzia batzuk daude, eta apaizen eragina maldan behera joan da. Bizkaian, 1970-2020 epean, 700dik 85era edo 100era jaitsiko da jarduneko apaizen kopurua. Baina, batez ere, erlijio eta eliz kontzientzia ari da nabarmen gutxitzen.

Ezin ukatuzko krisian murgilduta dagoen honetan, euskal elizak gizakiaren aldeko konpromisoak hartu beharko litzuzke, konpromiso askatzaileak. Helburua ez da Eliza GKE bat baino ez izatea. Beste zerbait da. Hala ere, haren lana sinesgarria izango bada, konpromisoa hartu beharko du ahul eta zapalduentzako justiziaren alde, giza eskubide guztiak eta bakea aldeztu beharko ditu, eta lan egin herriaren kultura eta nortasunaren mesedetan. Elizak Euskal Herrian batuta egon beharko du, Burgos eta Iruñea bitarteko administrazio zatiketa interesatua bazter utzita.

Bestela, bere tenpluetan itxita gelditu da, bertan zentzurik gabeko errituak administratzen gelditu ere, eta hondar-burokrazia batzuk besterik ez dela dependentsia eta mendekotasuneko erakunde zaharkitu batean. Eta ez zuen asmo hori izan «gatibuei askatasuna eta behartsuei berri ona adieraztera... zapalduak askatzera» (Lk 4, 18) etorri zenak.

Erredakzioan itzulita

zutabea

Antton Azkargorta

Europak ba al du arimarik?

Hollandan hil duten Pim Fortuyn ultra-eskuindarrak idatzi berri zuen liburua-ren izenburuak, *Arimarik gabeko Europa*, mundu zibilizatuaren kulturak egun bizi duen ondorezaren sintomatza har dezakegu. Iragan ez oso urrunean europarren bizitza eta jokabidea gidatu zuten balore eta printzipioak desagertu eta haien orde, Europa kapitalaren mertzenarioen eta merkatarien eskuetan utzi dute: arau materialista hutsek («interes hotza eta eskurako ordainketa krudela» Marx-ek esan zuenez) gidatzen dute gaur gure bizitza. Freud-ek orain dela mende bat aurkitutako kulturaren egonezinen antzeko zerbaiten aurrean gaude-la dirudi.

Egoera horrela laburtu daiteke: Nietzsche-ren *Jainkoa hil da* esaldiak, funtsean, giza bizitzaren existentzia erabakiko lukeen eta hura baino harantzago legokeen zentro bat ez dagoela adierazten du. Bestalde, kapitalismoak ederki birrindu ditu betidaniko loturak: feudalak, familiarak, idilikoak... Ondorioa: Jainkoa hil egin da baina hark betetzen zuen tokia pentsatu gabe dago. Eta hutsune izpiritual hori ezkerak —munduari orientazio askatzaile bat eta printzipioetan oinarritutako politika aurrera eramanez— ez du betetzen jakin. Ezkerreko arimarik gabeko gizartearen interesak kudeatzera mugatu dira boterean egon direnean. Gauzak horrela, iparra galdu duen ezkerria eta eskuin ustelduaren bitartean, ultraeskuineko taldeak ari dira hazten. Eta hauek, gizartearen arimaren falta, etorkinei eta partiduetako eliteei egozten diete. Defentsazko faxismoa da Europako hau, ez inperialista. Tradizioaren baloreak eta nazioaren sustantzia aldarrikatzen dituzte babes nostalgiko gisa. Demagogia eta ideia sinpleekin jendea engainatzen dute, beraiek inork baino hobeto dakitela agindutakoa bete ezina dela. Egia esan, boterean dagoen benetako faxismoa eta inperialismoari legitimitatea emateko puztutako panpina baino ez dira Le Pen eta konpainia.

seiko urrea

Iñigo Aranbarri



Harria ahoan

Pernando Barrenak, pasa den astean Arnaldo Otegi Gasteizko Legebiltzarrean PPkoei bezalaxe, «faxistak» deitu die UPNko parlamentariari osteguneko saioan. Sanz presidentea ez zen mutu geratu ordea, eta «fatxa bakarrak eta euskonaziak, Bata-suna taldean daudenak dira», esanda itzuli zion harria. Harriak baitira zenbait hitz.

Egiten duten bidea, xelebrea da zinez. Berez zerbaiti ematen zaion izena, betetzen, zikintzen, ugertzen joaten da denborarekin. Historiaz zamatzen da, erabilerak publiko eta pribatu, sentimenduz eta esperientziak. Eta ibilian-ibilian galtzen du, —inoiz izan badu—, hasierako garbitasun, berezko esanahi hura.

«Faxista» hitza, bistan da, ez da zilarrenetarik. Batasunekoentzat, identifikazio ideologikoa da batez ere, historiari egindako aldarria, PPk aurrera darman «txilindroaren politika» ikusita, boterearen gehiegikeriaz ohar gaitzen. Identifikazioa eta oroimena. Ez alferrik, Francorekin ministro izaniko batek sortu zuen alderdia. Eta beraz, eta ezinbestean, irain.

PPkoentzat, bestela da. Identifikazioa baino, nahiago laidoaren indarra. «Faxista», Sanzen «nazi» bezalaxe, hitz deserosoa da batez ere, akordio unibertsalari aurre egin ezin eta ginetik kentzea komeni den berba zantarra. Eta eskolakideen biktima den ume amorratuaren teknika imitatuz, berba bera sala-

tariari behin eta berriro itzulita, akitu arte albistegietan errepikatuta ari da lortzen harria bueltatzea. Faxista ez da gaitututa dagoen historia, ez du boterearekin zerikusirik, faxista jarrera da, ETaren eta bere lagun jarrera.

Hitzen gaineko kontrola, Golango Gainena bezain inportantea da. Belengo Natibitateko elizan berrogei egunez setiatuta egon diren palestinarrek, «berriro ere libre» direla iragarri du kazetariak. «Libre» esan du, gero, hegazkin militarretan sartu eta desterru bidean jarri dituztela gehitzeko.

Horregatik komeni da hitzak nork eta nola betetzen diren jakitea. Gurea bezalako gizarte batean, ez adjektibo mingarriak eta izen abstraktu ederrak, susmoa dut izenik sinpleenak ere (etxea, kalea, ogia...), aho desberdinegiek zikindu ditugula esanahi bakarra dutela sinets dezagun.

Zolak abisatu zuen: hitz bat, logika bat da. Zerbait bazekien estatuari *J'accuse* esaten ausartu zen esku petral hark.

kornerra

Mikel Elorza

Keinukaria

Argi-keinukaria piztuta ote dagoen txiste txararren antzekoa da Ibarretxe eta EAEko herri-galdeketa. Orain bai, orain ez. Eta horrela pasa litzezke urteak... Baldintza egokiak eman daitezkeen egunean egingo omen da, baina noski, herritar xumeok ez dakigu zein diren baldintzok, eta beraz agintari txit gorenei utziko diegu hori ere erabakitzen. Kontu hori baino hobea da, hala ere, PPk eta PSE-EEK balizko galdeketa edo erreferenduma gaitzesteko erabiltzen dituzten argudioak. Herri-galdeketa *zatikatzailea* izango litzatekeela da niri gehien gustatzen zaidana. Galdeketa zatiketa eragingarri; hauteskundeak adina? Agerikoegia da argudioaren herrena. Hain inozoak ez dira politikariak —batzuk bederen— eta beste zerbait esan nahi dutela pentsatu beharko, beraz. Emaitzari izango diote beldurra. Agian. Eta batez ere EAJ hitzetatik ekintzetara pasa izanari.

kornerra@egunkaria.com